


*Bide berri bat*  
*mendi*  
*ahaztuan*

KORDADA:  
Alberto **Iñurrategi**  
Juan **Vallejo**  
Mikel **Zabalza**

بازم  
peak



## AURKEZPENA

**Paiju Peak, 6.610 metroko** dorre ikusgarria, ederrean parerik gabea, mendi ahaztua da. **Karakorumen** barneratzen diren alpinistek aho bete hortz begiratzen diote beti mendi zorrotz horri, mira eginda ederresten dute haren silueta, baina aurrera jarraitzen dute beren bidean. Inork ez dio hortzik erakusten. Zortzimila metroko mendietara bidean izaten dira mendizale gehien-gehienak. Eta harkaitz eskalada maite dutenak, aldiz, horma garbiagoen bila menturatzen dira, elur eta izotz estalki hori ez duten mendietara: Trangoko mendigunera, esaterako. Hori dela eta, mendi harrigarri hori, denen begi-bistan egon arren, umezurtz eta bazterrera geratu da urteen joanean.



Paiju Peak mendiaren kokapena, Baltoro glaziarrean.

Mendiak, ordea, **osagai guztiak ditu maila goreneko alpinismorako**: 1.000 metrotik gorako harkaitzezko beso eta ezproi birjinak eta pasarte mistoak eta izotza tartekatzen dituzten mendi-hegal tente-tenteak gailurrera bidean. Gorpuzkera zaileko mendia izanik, baina, eskalada bera ere konplexua da logistika aldetik. “*Big wall*” bat eskalatu behar da lehenbizi, eta izotz eta mistoko jardun gogor eta konpromiso handikoa gainditu behar da gero. Egiazko eskalada eta alpinismoa seimilako garai batean.

### Aurrekari bakarra

Esandakoaren adierazgarri, harrigarria eta aski deigarria da Paiju Peak ederrak igoera bakarra izatea, eta areago, mendiaren hegoaldeko aurpegi mirezgarria oraindik ere birjina izatea. Igoera bakar hori, gainera, ez da atzo goizekoa: **1976ko uztailaren 21ean** eskalatu zuten mendia lehen aldiz **Bashir Ahmed, Nazir Sabir** pakistandarrek eta **Allen Steck** estatubatuarrek. Geroztik ez da beste inork jo gailur hura. Pakistandarrek ipar isurialdetik jo zuten mendira, Uli Biaho glaziarretik. “*American Alpine Journal*”

aldizkariaren arabera, Espainiako talde batek beste saiakera bat egin zuen 1984an, baina itxuraz ez da beste aurrekaririk izan mendi horretan. Hortik Paju Peak mendiaren horma hormatuek eta ahantziek gordetzen dituzten sekretuak deskubritzeko zirrara eta lilura.


# INGURUNE GEOGRAFIKOA

Mendia **Karakorum mendigunean** dago, Pakistan, India eta Txina mugaldean (Asia/Karachi ordu-zona, Euskal Herrian baino 3 ordu gehiago).

Mendigunea, **munduko bigarren garaiena** Himalayaren ondoren, 500 kilometrotik gora hedatzen da izotzezko erreka eta ibar basatien artean; izatez, Himalaya bera baino leku gotorragoa eta biztanle gutxiagokoa da Karakorum, ez alferrik Poloetatik kanpo glaziar gehien dituen ingurunea baita. Lehen europarrak XIX. mendearen hasieran menturatu ziren mendigune hartan, baina egiazki ezagutzeko mende luze bat joan zen. **Paiju Peak** (I 35°.43' – E 74°.04) **Gilgit-Baltistan** (Kaxmir) probintzian goratzen da. Glaziar horrek Karakorum mendigunearen zati handi bat zeharkatzen du, iparraldean eta ekialdean Baltoro Muztagh mendilerroa eta hegoaldean Masherbrum mendiak direla. **K2** (8.611 m) da Karakorumeko mendi garaiena, eta ez oso urruti, badira beste hiru zortzimilako ere: **Gasherbrum I eta II** eta **Broad Peak**.

Glaziar horretatik jaiotzen da **Shigar** ibaia ere, Indoren ibaiadarra. Eta, aldi berean, hainbat glaziar elkartzen dira **Baltoron**, aurrez aipatutako **Gasherbrum** mendietatik datozenak, besteak beste. Mendien aldare hori oso leku ezaguna da trekking-zaleen artean. Mendi haietarako sarbide, **Skardu** da hurbileko hiri nagusia.

Paiju Peak mendiaren oinarriko bidea samurra da, Baltoro glaziarren ohiko bidari jarraituz. Mendiaren magaletik, 3.300 metro gorago, zutarri baten pare luzatzen du lepoa Paijuk, eta 3 kilometroko desnibel bertikal-bertikala gaudituta du burua. Seguru asko magal horretan **jarriko dute hiru espediziokideek kanpaleku nagusia**.



## Paiju Peak bertakoen kulturaren

*Paiju*-k **gatz**a esan nahi du: hain zuzen, oinarrian dauden harkaitz gazietatik hartzen du izena mendiak. **Bertako kondairen** arabera, gailurreko elurra ez da berez elurra, gatz biltegi erraldoi bat baizik, eta mendiaren altzoraino, Braldu ibarreraino, horman behera isurtzen eta labaintzen da gatz hori. Zuritasun horrekin kontrastean, glaziarrek arrastan eramandako harri eta izotzezko ibilgu beltzak zeharkatzen du Braldu ibar hori.

Beste zenbait mendigunetan, Indiako Gangotrin esaterako, milaka budista eta hinduista hurbiltzen dira erromes glaziarraren ahorraino, bertan otoitz egiteko. Hemen, ordea, bertako biztanleek **beldur diote Baltorori**, glaziarraren izotz eta arrakala izugarriei, eta espirituen bizilekutzat jotzen dute.

Ederrean parerik ez duen lekua da, eta ikusmira zoragarri hartan **Paiju** da argazki kamera eta begi guztien xedea. Ez ordea eskalatzaileen jomuga: ezin konta ahala aldiz erretratatu izan arren, behin baino ez baita eskalatua izan, arestian esan dugunez.



## HELBURUA

Hauxe da hirukotearen helburu nagusia: Paiju Peak mendiaren hegoaldeko aurpegi eskalatu gabean **bide berri bat zabaltzea**. Mila metrotik gorako harkaitz pilare itzelak erakartzen du eskalatzailen begiratua. Logistika zaileko bidea eta eskalada da. Beren filosofiari leial, ahalik eta estilo alpetar garbienean saiatuko dira, baina seguru asko **kapsula estiloa** baliatu beharrean izango dira. Nolanahi ere, zaila da alde zurretik horrelakorik ziurtatzea, mendian bertan aukera guztiak aztertu arte. Ez dute baztertu soka finko pixka bat eramatea ere, horman egin beharreko bibak batetik bestera maniobratzeko tartea izateko.

Kapsula estiloaren funtsa da eskalatzailak behin horman sartzen direlarik **ez direla gehiago lurrera jaisten**, harik eta saiakera bukatu arte. Denda puntu batean kokatu ondoren, sokak finkatuz eskalatzailak dute, berriro ere dendara itzultzen dira lotara, eta hurrengo egunean berriz ere bezperan iritsitako puntu gorenera igotzen dira eskaladari segida emateko. Tartea nahiko luzea denean edo bibakerako kokagune hobea aurkitzen dutenean, goragoko puntu batera eramaten dute kanpalekua, eta eskaladako eta biziraupenerako material guztia zamatzen dute horman gora.



# EGITARUA

Eskalatzaileak **ekainaren 15ean** abiatuko dira etxetik eta, ondo bidean, **ekainaren 20 aldera** iritsiko dira **kanpaleku nagusira**.

Mendiaren beraren eta eguraldiaren araberakoa izango da altuerara egokitzeko fasearen erritmoa, baina hirukoteak pare bat aste beharko dituela aurreikusi du, eskaladari bete-betean ekin aurretik. Bide berria eskalatzeko, berriz, **horman 10 egunetik gora** beharko dituztela uste dute.



## SOSLAIAK: HIRU SOKALAGUN



**Iñurrategik, Vallejok eta Zabalzak telebistarako filmatu eta satellite bidez beren espedizioetako kanpaleku nagusietatik ordenagailu eramangarriaren bitartez bidalitako irudiak.**

**Ozta-ozta egin zioten ihes elur-jausi bati Everesteko Hornbein korridorean:**

**<http://www.youtube.com/watch?v=4xOnAEBM-oE>**

**A 8.047 metrotan, Broad Peaken, harrigarria da zer abiaduratan igotzen diren:**

**<http://www.youtube.com/watch?v=DDL3ZN1nt7k>**

**Nuptsen, joan den urtean,**

**<http://www.youtube.com/watch?v=LrbuD3SrM0w>**

**Antartika gurutzatu zuten, Hego Polotik igarota, 55 egunetan. Oso-oso gogorra izan zen. “Alpinismo bertikala”, beren hitzetan.**

**[http://www.youtube.com/watch?v=HoJz\\_wwC8kQ](http://www.youtube.com/watch?v=HoJz_wwC8kQ)**

**Informe Robinson saioak “hiru mosketarien” aurkezpena egin zuen aurreko otsailean, denboraldi berriaren hasieran. Dokumentu ederra.**

**[http://www.youtube.com/watch?v=zi-PJ6Tp\\_kw](http://www.youtube.com/watch?v=zi-PJ6Tp_kw)**

## **ALBERTO IÑURRATEGI.** **ARETXABALETAKO (GIPUZKOA) 1968**



Alberto Iñurrategi munduko hamargarren alpinista izan zen hamalau zortzimilakoak igotzen. 1990ean, Felix anaiak eta biek lehen mugarrria ezarri zuten Himalayako beren ibilbidean, Pumori gailurrean (7.181 m). Ondoren, 1991 eta 2000. urteen artean, elkarrekin orpoz orpo igo zituzten hamabi zortzimilako. Hain zuzen, hamabigarrenaren gailurretik jaisten ari zirela, Gasherbrum II mendian behera, hil egin zen Felix, 2000. urteko uztailaren 28an. Albertok alpinismoaren bideari eutsi zion osterara eta osatu egin zuen zerrenda: Gasherbrum I, 2001ean, eta Annapurna, 2002an, azken dotorea emanaz egitasmoari.

Himalaya da gaur egun ere Alberto Iñurrategiren jardueraren erreferentzia nagusia.

- Cho Oyu (8.201 m) ohiko bidetik, 2002ko abenduan.
- Gasherbrum III (7.952 m), munduko bigarren igoera, 2004an.
- Bhainta Brakk (7.285 m), britainiarren bidean ahalegina, 2005ean.

- Shivling (6.543 m), ohiko bidetik, 2006ko maiatzean.
- Everest (8.848 m), saiakera Hornbein korridoretik, 2006ko irailean.
- Cerro Torre (Patagonia), saiakera Maestri bidetik, 2007an.
- Gasherbrum IV (7.925 m), ipar-mendebaldeko ertzetik, iparreko gailurreraino (7.906 m).
- Baruntse (7.245 m), ohiko bidetik, 2009an.
- Makalu (8.463 m), ahalegina mendebaldeko pilaretik, 2009an.
- Everest (8.848 m), saiakera Hornbein korridoretik, 2009an.
- Broad Peak (8.047 m), bide berri bat eta hiru gailurren 3. zeharkaldia, 2010ean.

Alberto Iñurategik hainbat dokumental, telebistako saio eta ikus-entzunezko zuzendu eta egin ditu, besteak beste ‘Oinak Izarretan’ (ETBrako), ‘Hire Himalaya’ (Felix anaiari omenaldia eta Himalayismoari buruzko gogoeta sakona), ‘Gure Himalaya’, ‘Begiz begi’... Eta beste hainbatetan laguntzaile izan da, hala nola TVEko ‘Al filo de lo imposible’ saioko hainbat kapitulutan. Horiengatik guztiengatik hainbat sari jaso ditu nazioartean.

## **JUAN VALLEJO.**

**GASTEIZ. (ARABA) 1970**



Juan Vallejo oso gazterik hasi zen Pirinioetan eta Alpeetan eskalatzen. Himalayara 1993an joan zen lehen aldiz, nora eta Everestera. Suhiltzailea lanbidez, 1999an hasi zen TVEko ‘Al filo de lo imposible’ saioarekin lanean, eta harrezkero bete-betean mendiari emana bizi izan da. Urteotan guztietan 30 espediziotik gora egin ditu munduko mendilerro guztietan: Karakorumen, Himalayan, Andeetan, Patagonian, Yosemitean... Baita zeharkaldi horizontalak ere Groenlandian eta Patagoniako Izotz Kontinentalean.

Zortzi mila metrotik gorako bederatzi mendi ditu igoak, eta altueraz apalagoak izan arren, zailtasun handiko beste hainbat mendi ere eskalatu ditu, hala nola Trangoko Dorrea, Aconcaguako hego aurpegia edota G-IV, meritu handiko beste hainbat saiakera ahaztu gabe.

2009an Makaluko mendebaldeko pilare ederrean saiatu zen udaberrian, eta Everesteko Hornbein korridorean, udazkenean, bietan alpetar erara. 2010ean, berriz, Broad Peakeko hiru gailurren zeharkaldia lortu zuen, erdiko gailurreraino bide berri bat zabaldua, gainera.

## **MIKEL ZABALZA.**

**IRUÑEA (NAFARROA) 1970**



Mikel Zabalza Azcona mendiko kirol teknikaria da, Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa, eta harkaitz eta izotz eskaladako nahiz alpinismoko irakaslea Nafarroako Goi-mendi Eskolan (ENAM). Gaur egun, Alpinismoko Talde Nazionaleko zuzendaria da.

**Kirol maila:**

6+ izotz eskaladan

8a/b landuta eta 7c bistaz, kirol eskaladan

A4 eskalada artifizialean

TVEko 'Al filo de lo imposible' saioko kolaboratzaile izan da hainbat espediziotan, besteak beste Antartikan, Broad Peaken neguan egindako saiakeran, K2n, Suaren

Lurraldean, Kangchenjungan, Alpeetako Capuchin eta Freney bideetan, G-IIko ipar aurpegiak eta Manaslun.

33 bide zabalduak ditu Pirinioetan, eta bederatzi Europako mendietan, eta bakarkako hainbat eta hainbat eskalada eginak ditu mendilerro horietan. Eskarmentu handia du Alpeetan, Patagonian eta Antartidan ere. Himalayan, hauek dira bere lorpen nagusiak:

- Lantang (Nepal): Ganchempo (6.380 m), Dorge Lakpa (6.990 m) eta Lempo Gan (7.080 m). Bide berriak. 1992an.
- Trango (Pakistan): Izenik Gabeko Dorrea, bide berria (900 m, 6b/A3+). 1995ean.
- Kanchenjunga (Nepal): Britainiarren bidea ipar aurpegiak (8000 metrora arte). 1997an. Saiakera hego aurpegiak (8.400 metrora arte). 2006. urtean.
- Dunagiri (India): Ipar aurpegiak (7.120 m). Bide berria (1.500 m VII/5) gailurrik gabe, 1998an.
- Changu Tower (5.900 m, Pakistan): Bide berria (1.200 m, 7a+/A3). 1999an.
- Everest (Tibet): Saiakera ipar aurpegiak (8.100 metrora arte), 2000. urtean. 2009ko udazkenean, saiakera Hornbein korridorean, alpetar erara.
- Broad Peak. Neguko saioa. 2003an.
- K2. Saioa poloniarren bidean. 2002an.
- K2. Abruzzi bidea (ohikoa). Gailurra. 2004an.
- Kusum Kanguru (6.369 m). Ipar aurpegiak (1400 m VII/ 5). Gailurrik gabe. 2005ean.
- Gasherbrum II, ipar aurpegiak bide berri bat zabaltzeko saioa. 2007an.
- Gasherbrum IV (7.925 m), ipar-mendebaldeko espaloia, bigarren errepikapena. Iparreko gailurra. 2008an.
- Manaslu (8.163 m), ohiko bidea. Gailurra. 2008an.
- Baruntse (7.163 m). Igoera alpetar erara, eta ahalegina Makaluko mendebaldeko pilarean. 2009an.

- **HARREMANA:**

**L&V COMUNICACIÓN**  
**ANA LARIZGOITIA**  
**Tel. 94 416 08 00**  
**Mugikorra 656 788 328**  
**[larizgoitia@lvcomunicacion.com](mailto:larizgoitia@lvcomunicacion.com)**